

## *Mario Padilla Maguregi*

*Eskoriatza,  
Gipuzkoa (1928)*

Aurkibidea

**Biografia**



1928an jaio zen Otxandion. Aita Zarimutz auzokoa zen. 1965 inguruan etorri zen Eskoriatzara bizitzera. Umetan korura joaten hasi eta musika eta txistua ikasi zituen. Bandako zuzendaria, txistulari- eta dantzari-taldeen sortzailea eta ikastolaren bultzatzailea izan da.

**Zintak**

**ESK-016**

- **Proiektua:** Eskoriatzako argazki fondoen dokumentazioa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Parra, Leire
- **Data**: 2005-01-01
- **Iraupena**: 49 min
- **Euskarria**: CD
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

## Pasarteak

### 1. Eskola kontuak gerra garaian

- **Erref**: ESK-016/002
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:01:58. **Bukatu**: 00:03:39
- **Multimedia**: audioa online entzungai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

#### Laburpena:

Gerra zibila hasi zenean, eskolan zer ikasten zuten azaltzen du; Francoren aldeko kantak ikasi behar izaten zituzten. Gaztetan gau-eskolara joan zen.

#### Transkripzioa

- Eta Otxandixon ze urtetararte jua ziñen hara eskolara ta...?
- Ba, eskolan... gerran emon gendun guk denpora gehixena. [Neukezan] trenta y seisien neukezan nik hamar urte, ta trenta y seisien hasi ta berrogei, cuarentararte edo, hamarretik hamalaure, pixkat ikesteko garaie euki gendunien, ba, "Cara al sol" ta "Por dios, por la patria, el rey" ta holako gauzak ikesi genduzen. Ta gero gabeko eskolan apurtxo bat. Gabeko eskolia emoten euien orduan, eskola-maixuei pagetan otsien sobresueldo bat edo, sueldo [txiki... zan] ta. Hasi nobienbrien edo hasi ta, ba, enero erdi-ingururarte edo, gabez, gabeko bederatziretatik...
- Gabeko eskolak?
- Gabeko eskolak.
- Fin-fin.
- Ordu ya orduko neskakin-ta hasitta gengoan, ba, ordu ezin gauza haundirik ikusi.
- Ya... Denboria pasau gehixao.
- Jolasien batzugin ta... zoeze gehixuao... pixkat zentzun gehixao eukitten dozu ta ba... mutikotan baiño. Gero ordu, barriz, eskola-maixuek... ez die oingo moduen andereñuek hamalau, hamasei, hogeigaz ta; gure eskola-maixuek larogetaka eukezan bere azpizen. Pentseizu, larogeta ume hazteko...
- Ya... hainbeste gobernetako...! Puf!
- Haunditxuenak [ibiltzen] ginduzen txikixei erakusten; hamahiru-hamalau urtegaz ibilite nao, ba, sesiño bat edo, hogeit bat mutiko edo geure...
- [...] eitten?
- ... erakusten hori. [...] ta larogetaka mutikuak... puo!

### 2. Musikarako zaletasuna umetatik

- **Erref**: ESK-016/003
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:03:39. **Bukatu**: 00:05:18

- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Musika

**Laburpena:**

<p>Umetan korora joaten hasi zen eta orduan organista zenak erakusten zien musika pixka bat. Musika Bandan ere hasi zen; txistua jotzen ikasi zuen. Inguruko txistulari ezagunak, etab.</p>

**Transkripzioa**

- Ta musikia be han ikasi zozun edo...?
- Musikia koruen. Koro parrokialera hasi giñen abotsa ona [euken...] edo belarri ona geunkenok, ba, ta harek zerak erakusten oskun bertako organistiek. Bai. Otxandixoko organistiek. Ta ha be kanpotarra zan, Lekeitixokue. Bai. Don Pedro Jauregi. Ha zan lehelengoko maixue musikan. Ta gero, ba, hasi giñen, ba, banda musikiaz ta banda musikatik txistulari zaharra be hil zan ta iñor ez euela txistularirik eta neu hasi nitzen txistu... ikesten. Ta pixkat holan...
- Zeure kabuz?
- Bai, sasi-txistulari izen naz ni. Maixo bako...
- Bai! Sasi? Oi sasi... Hoixe!
- Sasi txistulari. [...].
- Baiña eskola onekue.
- [...] ahalegiñe ein dou, ez holan aparteko...
- Asike, ikasi, zeure kabuz ikasi dozu, e?
- Bai, bai.
- Joe...!
- Klaro, lehen gehixenak autodidaktak.
- Klaro!
- [...]
- Txistulari zaharrak han beste txistulari bat be, bat hil zaniene beste bat euen, ta harek lehelengo notak eta gero, hoixe, Demetrio-ta juaten zien han bertako herriko jaixetan Aretxabaletako txistularixek, Oñatikuek, ta horrek erakusten ostezan soiñu batzuk eta danboliñe zelan jo ta... Hantxe egoten zien hiru egunetan, lau egun edo...
- A, bai? Han jaixetan, e?
- Bai.
- Ta orduen aprobezetan zabiene erakusteko zeuei...?
- Neuri erakusteko ta gero ya...
- Baiña hori Demetrio hori [entzuna da], Demetrio hori Aretxabaletako txistulari... bastante famosue edo behintzat entzunda...
- Hori oñatiarrak [dia horrek] izatez, oñatiarrak.
- Izatez oñatiarrak dia?
- Bai, bai. Demetrio Iriarte!

**3. Otxandio gerra garaian**

- **Erref:** ESK-016/004
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:05:18. **Bukatu:** 00:06:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

#### **Laburpena:**

Otxandioko bizimodua gerra aurretik; zenbat biztanle zeuden... Frontea bertan egon zen eta lantegi asko kanpora joan ziren.

#### **Transkripzioa**

- Eta garai hortan Otxandixo zenbat biztanle izengo zien? Haundixa zan edo...?
- Ez, gerra [hasi] arte biztanle gehixao [eukezan] oin baiño. Gero bertan frentie zela jarri zan, ba, taillarrak-eta seguridadiaaaittik, segurtasunaaittik, [Bilbora eruan ebiezan, ... ta]. Ta gero taillar... gero gerra-ostien zelan...
- Gero lanik ez...
- ... tokatu jakun sekretarixo bat, ba, zerekue, "del regimen", ba, harek ez zeban... iberduero ointxe honaxe etorri baiño lehentxuao [hartu... honi], iberdueroi. Bertako hemengo Bolibarko modoko [... sartu...] holako zentral txikitxuek. Ta udan... neguen ur gehixao eukitten euenien ta, ba! Neguen, ba, egun guztixen egoten zan argixe, baiña udan gabeko hamarretarako... ez euen argirik; ta egunez be holako ipurtargixe [...] moduko argitxo bat.
- Horrekin ezer gutxi [...], ez?
- Ez, ez. Holaixe zan orduko kontuek.

## **4. Otxandiotik Eskoriatzara bizi izatera**

- **Erref:** ESK-016/005
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:06:24. **Bukatu:** 00:07:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

#### **Laburpena:**

Otxandiotik Eskoriatzara nola eta zergatik etorri zen 1965ean; Ederlanen hasi zen lanean orduan.

## **5. Eskoriatzako dantza-taldea**

- **Erref:** ESK-016/006
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:07:03. **Bukatu:** 00:07:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### **Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

#### **Laburpena:**

Eskoriatzara etorri zenean herria nola aurkitu zuen. Euskararen erabilera; dantza-taldea...

## 6. Dantza-taldea; dantzariak

- **Erref:** ESK-016/008
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:08:21. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

### Laburpena:

1965 inguruan Eskoriatzan zegoen dantza-maisua nor zen kontatzen du; dantzari batzuen izenak ematen ditu. Mario ume txikiei dantzan erakusten nola hasi zen aipatzen du.

## 7. Dantza-taldearen sorrera eta bilakaera

- **Erref:** ESK-016/009
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:09:10. **Bukatu:** 00:10:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

### Laburpena:

Gorosarri, musikari oso ona zen eta dantza taldea sortu zenean bere izena ipini zitzaion. Dantza-taldearen bilakaera.

## 8. Dantza-taldeak izan dituen lokal desberdinak

- **Erref:** ESK-016/012
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:12:28. **Bukatu:** 00:15:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

### Laburpena:

Dantza-taldearen entseguak non izaten ziren aipatzen du; lokal desberdinak.

## 9. Inguruko herrietara dantza egitera

- **Erref:** ESK-016/013
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:15:01. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

### Laburpena:

Dantza-taldeak egin zuen lehenengo ekitaldia 1966-67 urte inguruan izan zen. Aretxabaletan ez zegoen dantza-talderik eta beraiek joaten ziren bertara.

## 10. Biarritzera irteera

- **Erref:** ESK-016/015
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:18:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

### Laburpena:

Biarritzera egindako irteera azaltzen du Mariok. Euskal Dantzarien Biltzarra ospatu zen orduan; garaiko zailtasunak kanpora irteteko...

## 11. Inguruko herrietara irteerak

- **Erref:** ESK-016/016
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:18:36. **Bukatu:** 00:19:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

### Laburpena:

Inguruko herrietara egindako irteerak gogora ekartzen ditu.

## 12. Santa Agedako mutilak; "Kintoak" eskean

- **Erref:** ESK-016/020
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:30:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

### Laburpena:

<p>"Kintoen" ospakizunaren jatorria; azalpen interesgarriak ematen ditu. Santa Agedako mutilen antzera, "kintoak" ere eskean irteteko ohitura oso zaharra omen da.</p>

## 13. San Juan eta San Pedro bezperatan aurrekua plazan

- **Erref:** ESK-016/021
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:30:48. **Bukatu:** 00:33:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza

### Laburpena:

San Juan eta San Pedro bezperatan dantza-taldeko mutilek herriko plazan aurrekua dantzatzen zuten. Inguruko herrietako dantza-taldeekin harremana.

## 14. San Juan bezperan dantzaldia plazan

- **Erref:** ESK-016/022
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:33:52. **Bukatu:** 00:37:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

### Laburpena:

San Juan bezperan dantza-taldeak egiten zuen dantzaldia; ohitura zaharrak. Franco hil ondoren ikurrina noiz jarri zen lehenengo aldiz; jai-giroa... Gatzagako plaza.

## 15. Txistularien kalejira

- **Erref:** ESK-016/023
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:37:22. **Bukatu:** 00:39:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

### Laburpena:

Txistulariek pasakaleak noiz egiten zituzten aipatzen du. Txistularien tradizioa oso handia izan da beti, baina azkenaldian egoera aldatu egin da.

## 16. Musika Eskoriatzan

- **Erref:** ESK-016/024
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:39:36. **Bukatu:** 00:40:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

### Laburpena:

<p>Pasakaleak noiz egiten zituzten; Santa Zezili eguneko anekdota.</p>

## 17. Antzinako dantzak; ohitura zaharrak

- **Erref:** ESK-016/026
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:42:13. **Bukatu:** 00:44:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Kultura » Dantza

### Laburpena:

"Liñu-dantza"; ohitura zaharrak.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com